

KANALEKO ESTENOSIA

ZER DA?

Estenosis, orno-muineko kanalaren estutzeari deritzo. Jaiotzako zein ondoren hartutako jatorria (edo biak) izan dezake. Estenosiaren jatorri ohikoena bizkarrezurreko endekapenaren ondorioa izaten da. Orno-muineko kanala estutzean, hezurak eta inguruko egitura baskularrek orno-muina bera zein nerbio sustraia zanpatzen dituzte sintomatologia desberdina eraginez.

SINTOMAK

Sintoma ohikoena, klaudikazio neurogenoa deritzona izaten da. Hau da, ibiltzerakoan gluteo zein izterrera irradiatzen den mina eragiten du eta esertzerak behartzen zaitu gorputza aurreraka flexionatuz. Jatorri baskularreko klaudikazioak berriz, esertzerak behartzen zaitu baina kasu honetan ez du gorputza aurreraka flexionatzera behartzen. Gorputzaren aurrerako flexioa da, bi patologien arteko ezaugarri bereizgarria.

Kanala estutzean, nerbio sustraia zapaltzen bada ahultasun motorea, parestesiak eta nerbio sensorialen endekapena sor dezake, sentzibilitate alterazioak eraginez.

Estenosi lunbarraren kasuan, sintomatologia beheko gorputz adarrean azaltzen da eta zerbikalaren kasuan berriz, goiko gorputz adarrean.

TRATAMENDUA

Lehenengo fase akutuetan, nerbio sustraia eta egitura baskularrak zanpatuta badaude, tratamendu kontserbatzailea gomendatzen da. Ariketa terapeutiko pertsonalizatuak, batez ere, abdominal eta lunbar aldeko muskulatura lantzekoak, egokienak direla diote artikulazio zientifikoek. Fisioterapia laguntzaile garrantzitsua da sintomatologia erradikularra (nerbioaren) tratatzerako orduan.

Lehen sei hilabetetan tratamendu kontserbatzaile honek eraginik izan ez badu, kausa baskular eta nerbioak ezeztatu egiten dira eta ondorioz, kirurgia planteatzen hasten da. Kirurgia aplikatu aurretik, oso garrantzitsua da medikuaren zein fisioterapeutaren balorazio ona egitea eta kriterio batzuk adostea.

